
#04

# LEHENA ETA ORAINA: IRLANDA PATRIARKALAREN OROIPENAK MARIAN KEYES-EN LANEAN

**Mary Ryan**
*Mary Immaculate Fakultatea (Limerick-eko Unibertsitatea)*

**Aipatzeko gomendioa ||** RYAN, Mary (2011): "Lehena eta oraina: Irlanda Patriarkalaren Oroipenak Marian Keyes-en Lanean" [artikulua linea], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 4, 110-130, [Kontsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/index.php/eu/mary-ryan.html >
**Ilustrazioa ||** Mireia Martín
**Itzulpena ||** Edurne Aldasoro
**Artikulua ||** Jasota: 09/09/2010 | Komite zientifikoak onartuta: 25/10/2010 | Argitaratuta: 01/2011
**Lizentzia ||** 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena ||** Artikulu honek Irlandan emakumeen tokiak zenbaterainoko eragina izan duen aztertuko du Marian Keyes idazle irlandarraren lanean eta zenbateraino den haren ordezkari, auzi historiko, giza-balore eta legezko kontuetan. Bada, Irlandako gizartean emakumeak eragin dituen bi arlo nagusi aztertuko ditu: familia eta emakumearen gorputza. Kontu hauek guztiak irlandar gizartean tradizioz nola bideratu ohi ziren aztertzerakoan, artikulu honek azaleratuko digu nola Keyes-en eleberriek kontzientzia bat erakusten duten -memoria bat-, behinola irlandar emakumeen bizitza balore patriarkalek itotzen zutenekoa, eta nola egungo emakumeak oraindik orain ere, nolerebait, jokamolde haien ondorenak -hesiak- pairatzen ari diren.

**Hitz giltzarriak ||** Feminismoa | Emakumeak | Irlanda | Emakumezkoen Fikzioa | Familia | Gorputza.

**Abstract ||** This paper will observe how the work of Irish author Marian Keyes is influenced by, and representative of, the place of women in Ireland in terms of historical issues, social values, and legal issues. It will discuss two primary areas that have affected women in Irish society: the family and the female body. In addressing how such issues were traditionally viewed in Irish society, this paper will demonstrate how Keyes' novels present an awareness -a memory- of how Irish women's lives were once repressed by patriarchal values, and how contemporary women still, to some extent, feel the effects -the restraints- of such attitudes.

**Key-words ||** Feminism | Women | Ireland | Women's Fiction | Family | The Body.

## 0. Sarrera

Akaso, Marian Keyes idazle irlandarra chick lit idazle modura ezagutzen da gehien; ordea, garrantzizkoa da zera aitortzea, Keyes, besterik bainoago, idazle irlandarra dela; pentsatzekoa da jasotako heziketa irlandarrak eta berak gaur egun bizi duen Irlandak, biek ala biek, eragina izango zutela hein batean haren lanean eta Irlandan.

Artikulu honek Irlandan emakumeek betetzen duten tokiak zenbaterainoko eragina izan duen Keyes-en lanean aztertuko du eta zenbateraino den haren eskuorde, auzi historiko, giza-balore eta legezko kontuetan. Horretarako, irlandar gizartean emakumeengan eragina izan duten bi arlo izango ditu aztergai: ezkontza, amatasuna eta familia, eta emakumearen gorputza. Kontu hauek guztiak Irlandako gizartean tradizioz nola bideratu ohi ziren aztertzerakoan, artikulu honek azaleratuko digu nola Keyes-en eleberriek kontzientzia bat erakusten duten -memoria bat-, behinola irlandar emakumeen bizitza balore patriarkalek itotzen zutenekoa, eta nola egungo emakumeak oraindik orain ere, nolerebait, jokamolde haien ondorenak -hesiak- pairatzen ari diren.

## 1. Irlanda, familia, ezkontza eta amatasuna

Eztabaida feminista gehienek "denbora eza eta emakumea etxearekin uztartze naturalera" zuzentzeko joera izan dute (Whelehan, 1995: 9). Irlanda maiz sarri gizarte nagusiki patriarkal modura ikusia izan denez gero, hein handi batean «ugalketa eskubideekiko erakutsi duen "jarrera tradizionalaren" ondorioz eta emakumeek eskulanetan izan duten esku-hartze txikiaren ondorioz» (O'Connor, 1998: 3), emakumea etxearekin eta familiarekin lotzea are nabarmenagoa izan da akaso irlandar gizartean. 1937an, Irlandako Konstituzioak hainbat lege barne hartu zituen, zeinetan «emakumeengandik espero ziren rol amatasunezko eta otzanak bultzatzen ziren; horien bitartez herrialdearen patua hobetuko zutelakoan» (Barros del Río, 2000: sp. ). Irlandako gizarteak emakumeen egitekoetarako bi aukera oso mugatu utzi zituen: Ama Birjinaren irudiak osatzen zuen emakumeentzat ereduzko rol aukerakoena, eta amaren irudia, berriz, emakume irlandarren ereduko hartu ohi zen.

Hain zen garrantzizkoa Irlandaren enfasia emakumeen moraltasun eta etxeko lanetarako, non neska gazteei eman ohi zitzaien heziketak berak ere ezkondu eta familia izaten zutenerako haiengandik espero ziren egitekoak islatzen zituen; guztiz onartua zegoen huraxe zatekeela neska irlandar bakoitzaren etorkizuna eta pentsaezina zen inongo emakumek ezkontzaz edo amatasunaz bestelako ezer nahi edo eskuratuko zukeenik. Eredu hauek beste molde askorekin

sustatu ziren eta are Irlandako irrati-telebistaren hedapen konpainiari berari ere, TRÉri, «ezkontza eta amatasuna tradiziozko ereduak babesteko iradoki zioten» (Hill, 2003: 143). Honela, bada, emakume irlandarrek izugarrizko presioa jasan zuten kanpotik etorritako indar askotatik –Eliza, gizartea, familia, baita telebistatik ere- haien bizitzak hartu behar zuen bideari zegokionez eta ondorioz, ezkontza eta amatasuna bihurtu ziren Irlandako emakume gazte gehienen azken helburu.

Etxeari eta amatasunari Irlandan zor zaien gurtza bistakoa da baldin eta aintzat hartzen badugu soldatapeko lanbideetan dagoen ezkondutako emakume kopuru txikia: «Ehuneko 5,6a baizik ez 1926an eta kopuru beretan 60ko hamarkadara arte (Hill, 2003: 100); baita, emakumea etxean eta lanetik at gordetzeko helburuarekin onartu ziren legeak ere. 1933an esaterako, eskola-maistra nazionalak ezkontzerakoan lana uztera behartzen zituen legea onartu zuten eta 1935eko Enplegu-agiriak funtzionarioen lanpostu guztietara hedatu zuen ezkontzeko muga hau. Nahiz ezkontza-muga hau ez zen Irlandan legez inoiz hedatu funtzionarioez besteko lanpostuetara, garbi askoa zen gutxienik 70eko hamarkadaren erdi parera arte emakumeak ezkontzean lana uztea espero zela. Hainbat modutara sustatzen zen lanuztea: «ezkontza-sariaren bitartez (adib. ezkontzerakoan diru kopuru jakin bat ordainduta emakumeari, eta ondoriozko erretiroa aitortuz; gizon ezkonduentzat soldata-maila bereizi eta altuagoak ezarriz; eta gizarte ongizate eta lotutako zergen gaineko akordioen bitartez» (O'Connor, 1998: 38). *The Other Side of the Story* liburuan (2004),Gemmak, Keyesen protagonistetako batek, hausnar egiten du amak, beste emakume askok bezala, izan zuen aukera-ezaz Irlandan andre gaztea zen aldetik:

> Nekez sinets zitekeen amak noizbait lana izan zuela; mekanografia talde batean aritu zen lanean eta han ezagutu zuen aita. Haurdun geratu zenean utzi zuen lana, ordea; aurrez izandako abortuak ez zion aukerarik utzi. Akaso, edozein modutan utziko zuen lana behin ni jaioa nintzela, horixe baitzen emakume irlandarrek garai hartan egin ohi zutena. (Keyes, 2004: 61)

Irlandak "ezkontzaren estatusarekiko irrika bultzatu arren, andragai gehienak aldarera emazte egitekoen xehetasunen ezjakintasun zorionekoan iristen dira" (Hill, 2003: 21), eta horren ondorioz, mundu zabal osoko emakume guztiak bezala, emakume irlandarrak ere kontentagaitz sentitzen hasi ziren erreinu pribatura lerratutako bizimodu itogarriaren eitearekin. Jabetzen hasi ziren etxean haien toki "naturala" muga, estres eta borrokekin ere bete zitekeela eta nahiz "ezkondu eta haurrak izan zituzten emakumeak konforme ziren haien emakume rolarekin, ez zituen horrek zorigaitzetik babesten" (McCarthy, 2000: 105). Tristura hori bakardade eta isolamenduzko sentimenduek sortua izanik, senar emazteen arteko zorigaitzaren eta oro har, harreman arazoen kausa ohikoena, eta gutxien aztertutakoa, abusua izan ohi zen, mentala zein fisikoa, ia

beti gizonezkoek bikotekide emakumezkoengan eragindakoa" (Hill, 2003: 148); kontu hauek guztiak garai batean isilpean eta ezkutuan gorde ohi ziren jendearen ezagutzatik eta Keyes-ek aztergai izan ditu azken eleberrietako bitan, *This Charming Man* (2008) eta *The Brightest Star in the Sky* (2009) eleberrietan, alegia. Eleberri biek etxeko indarkeria eta larkeriari buruzko datu egiazko izugarriak erakusten dituzte eta baliagarri dira, gainera, etxeko indarkeria eta bortxaketa zenbateraino ezkutatu diren irudikatzeko eta, okerrago agian, kontatu izan direnean zenbateraino egin zaien ezentzun erakusteko. Irlandar Errepublikan soilik, emakume guztien bosten batetik heren batera bitartekoak nozitu duela inoiz bortxakeria harreman batean zehar balioetsi da; datu hauek berretsi egiten dira *This Charming Man* liburuan, nahiz pentsatzen den kopuru horiek ez dutela bortxakeria bere zabalean barne hartzen, kasu asko eta askoren berri ematen ez delako:

> Kezka maiz erasotzaileei zigor onbera ezarrita adierazi da, baina are kezkagarriagoa da kasuen zati handi bat inoiz auzitara ez eramatea. Ugariak dira emakumeak neurriak hartzetik saihesten dituzten faktoreak: seme-alaben ongizate eta segurtasunarekiko kezka, lotsaizuna, diru eta etxe kontuetan ziurtasun eza, eta askorentzat, egoera horren errudun beraiek direlako ustea. Baina ebidentziak erakusten du bikoteen aurkako ekintzak bideratu nahi dituzten arren, abusuak jasan dituzten emakumeek zail dutela zor zaien seriotasunez hartuak izatea eta oso konfiantza txikia dutela poliziarengan. (Hill, 2003: 192)

Egoera hauek guztiak irudikatzen dira *The Brightest Star in the Sky* eleberrian, ezkon berritan senargai-ohiak Maeve bortizki bortxatzen duenean. Eleberri honek zabal aztertzen du bortxa eta etxean gertatutako boztizkeria kasu askori ez zaiela zor zaien garrantzia ematen. Honela, bada, Maevek erasoaren berri emateko indarrak biltzen dituenean, inork ez diola sinesten jabetuko da. Erasoa gertatu zen unean soinean zeramatzan janzkeraz galde egingo diote, eta senarrak indar egingo du esanez "ez dira oso probokatiboak, ezta?" (Keyes, 2009: 533); nolabait, emakumea "probokazioz" jardun eta jantziz gero, guztiz ez bada ere, hein batean, behintzat, bortxatua izanaren erantzule delako usteari erreferentzia egiten zaio. Eta adiera honetan, bortxa "euren sexualitatea erakusten duten emakumeenganako zigor" modura ikusten da (Viney, 1989: 54); bestela esanda, emakumea "horren eske ari dela" ulertzen da. Poliziarengandik babesa jaso ez baina Maeveri bortxaketa bere errua izan zela sentiarazten diote, eta salaketa formala egiteko asmoa kendu nahi diote burutik:

> 'Zure hitza haren hitzaren aurka da. Begira, Vincentek aurrerantz kulunkatu zuen gorputza. "Ziur al zaude ez duzula, badakizu, errudun zarelako sentimendua? Azken aldiz, jainkoarren, senarrak horren berri izango zuelako beldur zinen."
>
> "Ziur naiz."
>
> "Ziur al zara honekin guztiarekin aurrera egin nahi duzula?

Aurrerago eraman?

"Ziur naiz."

"Ezen, honek bizitza hondatuko dio, badakizu. Badakizu zuk nola." (Keyes, 2009: 336)

Maeveri beranduago jakinaraziko zaio zigortzeko behar hainbateko ebidentziarik ez dagoela erabaki dutela eta honenbestez, poliziak ez duela epaiketarekin aurrera egingo:

"Errugabea frogatu bitartean, eta hori guztia."

"Baina nola froga daiteke auzitegira eramaten ez bada? Maevek eta biok berarekin egiten dugu lan. Lanarekin eta guztiarekin ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraituko duela esan nahi al duzu?

"Legearen aurrean ez du ezer txarrik egin." Polizia zutitu egin zen. "Zergatik galdu behar zukeen gizonak lana?" (Keyes, 2009: 537)

Honako aukera hauek izan ohi zituzten emakumeek: isilpean sufritzea edo hitz egitea eta entzungor egiteko arriskua hartzea. Maeveren kasuan, bakardade eta ezintasunezko sentimenduak depresio eta suizidio sentimendu bihurtu ziren beretzat eta senarrarentzat, biontzat. Maeveren senarrak, Mattek, bortxatze salaketa askotan dagoen justizia ezaz egiten du hausnar eta Keyes-i Irlandan bortxaketa kasuetan egozten diren zigor ikaragarri txikien berri emateko aukera uzten dio:

Matt aurrez sekula pentsatu ez zituen gauzez jabetu da: salatzen diren hamar bortxaketetatik bakarra iristen dela auzitegira; eta horietatik, ehunetik sei baizik ez direla zigortzen. Eta zer gertatzen da neska beldur delako inoiz salatzen ez diren bortxaketekin? Bortxatzaileaz? Poliziaz? Bortxaketa guzti hauek jakinarazi gabe, mendekurik gabe. Erotzeko adinakoa zen. Nola zitekeen mundua halako normala? Nola kontrola zitekeen amorrazio eta bidegabekeria eta min eta izu guzti hura? (Keyes, 2009: 541-542)

Honekin guztiarekin Keyesek lagundu egiten du "emakumeek jasandako bortxaren nagusitasuna zabaltzen eta duen garrantzia indartzen" (Hill, 2003: 148), eta baldin eta idazle gehiagok Keyesen antzera jokatu eta auzi garrantzizko hauek modu zabalean eztabaidatuko balituzte, gero eta nekezago litzateke arazoari muzin egitea.

Emakumeek esparru pribatuan hainbeste eta hain luze sufritu izanaren arrazoia da Irlandan oso lege gutxi zegoela emakumea etxean babestuko zuenik, ez eta, oro har, gizartean ere. Izatez, 70eko hamarkada hasiera bitartera arte Irlandan familiaren lege-estatutuak victoriar garaiko berberak ziren, emakumeei legez toki txiki bat aitortu zitzaieneko garaia eta etxeko indarkeria eta bortxaketa jendaurretik ezkutatu eta isilpean gordetzen zen garaia, alegia. Gainera, legeek esaten zutena zen "tratu txarrak jasandako emazte eta amak ez zezakeela senar bortitza etxetik kanpora atera (ia beti gizasemea izan

ohi zen) nola eta ez zen jokamolde gogaikarriez baliatuta" (Scannell, 1988: 73). Orduz geroztik halako egoeretan emakumeak eta haurrak babesteko aurrerapausoak eman diren arren, teorialariek ohartarazi dute hogeigarren mendearen beranduko urteetan ere, emakumeek Irlandan "etxe barruan erasotzen erraz izaten jarraitzen zutela" (Hill, 2003: 191). Egoera hauek *This Charming Man* eleberrian bistaratzen dira, non etxeko indarkeriaren biktima den Zara Kaletsky modelo/aktoresak deskribatzen duen poliziak ez zuela zirkinik ere egin hari laguntza emateko, jasan zuen indarkeria "etxekoa soilik" zela ikusita; horrek Zarari sentiarazi zion erasoaren berri poliziari ematearekin, laguntza eman ziezaiokeen jendeari, alegia, "akatsa" egin zuela eta sentimendu hori behin eta berriz erakusten dute etxeko indarkeria nozitu duten biktima askok:

> "Poliziarengana joateko akatsa egin nuen. Hain zegoen haserre, hilko ninduela pentsatu nuen."
>
> *Poliziarengana joan al zen neska?*
>
> "Eta salatu egin al zuten? Nola ezkutatu zuen hori prentsatik?
>
> Ezta bat ere. Begiak goratu zituen. "Bi kaiku gizen haiek horiz jantzita azaldu ziren eta etxeko indarkeria "baino ez" zela erabaki zuten bezain laster, elkar musukatu eta adiskidetzeko esan ziguten eta orduan bidean behera alde egin zuten patatak eta hanburgesak erostera. Egin nezakeen bakarra urruntze agindua eskatzea zen – eta horretarako hamabi aste beharko ziren." (Keyes, 2008: 591)

Zarari urruntze agindua eskatzea zela bere aukera bakarra esan ziotela irakurtzen dugunean, berrantolatzeko beharko zituen hilabeteetan zehar are indarkeria handiagoa jasotzeko arriskuan jarriko zuena, horrek berriz azpimarratzen digu irlandar legeak ez duela luze-zabalean ikusten zenbait emakumek etxe barruan bizi duten arriskua eta horren garrantzia; Grace Gildee kazetariak etsipenez eleberri berean dioen moduan "inori ez zaio etxeko indarkeria axola" (Keyes, 2008: 179).

Feminista irlandarrak azkenean jabetu ziren familia irlandarra emakume askorentzat gune perfektua izatetik urrun zegoela, eskubide urriak zituztela hauek eta sarritan egoera mingarri eta ez zorionekoetan irentsiak bizi zirela, ihesbide urria eskaintzen ziena, gainera. "Gizonezkoen indarkeria, bortxaketa, sexu jazarpena, haurren sexu abusua, ezkon-biolentzia edo pornografia "ez hain larritzat" jotzeak emakumeen euren gorputzaren osotasuna eta azken batean euren buruaren balioaren zentzua higatzen duela ikusi zuten (O'Connor, 1998: 14). Irlandan feministen aktibismoak emakumea familia bizitzan babesteko buru-belarri borrokatu zuen eta honen laguntzaz, berandu baino lehen emakumezkoek bizi zituzten egoerak jendaurrera azaldu eta legeak egoera guzti hauen berri ematen hasi ziren. Clodagh Corcoran teorialariak nabarmentzen du gizartekoaren zeregina bada bortxa eta etxeko indarkeria moduko arazoei aurre egitea, beste zapalkuntza molde batzuekin batera, orduan arazo

horiek “emakumeentzat eskubide zibilen kontu modura tratatu behar dira eta legeria egokia eskatu” (Corcoran, 1989: 20). Uste honi jarraiki, *The Brightest Star in the Sky* eleberria iruzkin optimista batez amaitzen da, auzi horiek jendearen arreta erakartzeko helburua islatzen duena: azken atalburuetako bat etorkizunari begirako argi kolpea da, zeinetan pertsonaia nagusienetarik ia guztiak Dublingo kaleetan kontzentrazio publiko batean biltzen diren “Irlandan bortxatzaileei ezartzen zaizkien zigor txikien aurka protesta egiteko” (Keyes, 2009: 594); berebat, etorkizunerako ikuspegi utopikoa erakusten du, Irlandako gizartean bortxaketa eta etxeko indarkeria inoiz gehiago ezkutatzen ez denekoa, eta aldaketa-oihuak publikoki aldarrikatzen direnekoa.

Emakume irlandarren artean arazo iturri zen beste esparru bat ezkontzaz kanpoko haurdunaldiarekiko izua zen, ironia hutsa bestetik, amatasunari emakumeek zor zioten begiramena aintzat hartuz gero. Kontrazepzioak aspaldiz gero harrotzen duen auziari, Irlandan sexu-ohiturak nozitzen ari diren jarrera aldaketa uztartzen badiogu, ondorioa ezkontzaz kanpoko haurdunaldi kopuruak gora egin izana dugu eta hau Irlandako moral katoliko zorrotzarentzako mehatxua zen . Hogeigarren mendearen azkenera Irlandan izan ziren “haurdunaldi sasikoen” kopuruak izugarrizko igoaldia izan zuen mugaz alde bietara, “Errepublikan 1970ean ehuneko 2,6ko jaiotzak izatetik 1995ean ehuneko 22,5 izatera; eta Ipar aldean aldi berean ehuneko 3,6 egitetik ehuneko 21,8ra” (Hill, 2003: 146).

Ama ezkongabearen estatus marjinal eta estigmatizatuak “perspektiba egokia eskaintzen du gizartean aldatzen ari diren genero rolak eta balioak eta instituzioak aztertzeko” (Joannou, 2000: 42). Irlandar gizarteak kastitatea eta nork bere buruaz duen jabetza goraipatzen ditu eta amatasunaren santutasunari buruz egiten diren adierazpenak adierazpen, errealitatea da “haurrak ezkontza bidez legeztaturiko baturatik sortzen zirenean soilik zirela ongietorri” (Hill, 2003: 27); sasikoa sozialki gaitzetsi egiten zen eta ama ezkongabeak gizartearen zigorrari aurre egin beharko zion bide “galduan” ibiltzeagatik. Eliza katolikoak defendatzen zuen bitartean “seme-alaba ez-legitimoen ratioak baxuak zirela, horrek berekin zekarren lotsaizun eta irainaren ondorioz” (Hill, 2003: 29), orain gutxi arte izan den antikontzepzio molde fidagarri, eskuragarri eta merke eza aintzat hartuta, litekeena zen bestelako neurriak hartzea ezkontzaz kanpo sortutako haurra “sasiko” izan ez zedin, hein handi batean ama (eta haren familia) lotsaizunetik babestearren:

> Maiz sarritan bikoteek –katoliko zein protestanteek- espero zuten haurra ezkontza bidez legeztatzen zuten, bai haiek hala nahi zutelako, bai familiaren eta Elizaren presiopean, garaiz jazotako jaiotza “goiztiar” bihurtuz. Sasiko haurrak sarri amonak edo familiako beste kideren batek hazten zituen; baita erreformatorioan edo bestelako ongintza etxeetan ere. (Hill, 2003: 29)

Seme-alabak adopzioan eman zituzten emakumeen esperientziak ezkutuan gorde dira usu, “egindako ogena” isilpean. Honela, bada, ezkontzaz kanpo haurdun geratzen ziren emakumeak –eta ezkongabe geratu eta haurra izaten zutenak- euren familien esku gelditzen ziren biziraupen ekonomikoari zegokionez eta hau horrela zitekeen soilik dena delako emakumearen familiak haren “sexu-inkonformismoa” ametitu eta onartzen bazuen; “guraso irlandar askok, erdi mailakoek batik bat, jendearen mespretxuarekiko beldur edo alaba ezkongabearen zama ekonomikoa euren gain hartzeko uzkur, etxetik kanpora botatzen zituzten alabak” (McCarthy, 2000: 104). Bada, 1960.eko hamarkada hasiera arte, “haurrak ezkontzaz kanpo izaten zituzten emakumeak “Magdalenatzat” hartzen ziren, eta ia bizitza osorako komunitateaz kanpo isolatzen zituzten Elizaren kontrolpeko erakundeetan” (O’Connor, 1998: 119). Bi familiei eta gizarteari orokorrean lotsa eta makurbidea ekartzeaz gainera, ama ezkongabea arazo sortzaile modura ere begitantzen da irlandar gizartean, hainbeste denboran irlandar moraltasunari estuki loturik zegoen familiaren santutasuna hondatzea leporatzen baitzaio. Amatasun ezkongabea hain lotsagarri zen Irlandan, ezen “ezkontzaz kanpo jaiotako haurrak legez diskriminatzen zituzten” (Connolly, 2005: 3). Nolanahi dela ere, egoera hau aldatu egin da Irlandan azken urteotan, nagusiki “hogeigarren mendeko azken bi hamarkadetan ama ezkongabeen kopuruak gora egiten jarraitu duelako Irlandako gizartean” (Hill, 2003: 193), nahiz “laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieraz geroztik hamasei urtetik gorako guztiek antisorgailuak eskuratzeko eskubidea izan eta HIESa osasun publikoari dagokion auzia denez gero, kondoiak makinetan 1993az geroztik eros daitezkeelako (Hill, 2003: 193).

Ezkontzaz kanpoko jaiotza kopuru altuak izateko arrazoiak arrazoi, garbi dago ezkontzaz kanpoko haurdunaldien ondorioak ez direla lehenagoko hamarkadetan bezain katastrofikotzat jotzen. Halaber, hainbat teorialarik, Pat O’Connor-ek esaterako, bakarkako aitatasuna/amatasuna ikusmolde positibo batetik deskribatzen du, erakutsiaz “emakumeek euren kabuz baliatzeko duten gaitasuna eta familia birdefinitzeko duten nahia” islatzeko boterea duela, “unitate horretan lotura heterosexuala oinarrizko elementu izatea saihestuz” (O’Connor, 1998: 119). Irlandan bakarkako amatasunarekiko tolerantzia aurki-berri hau bistakoa da Keyes’en hainbat eleberritan, protagonista lanetan ama ezkongabeak dituztenak. *Watermelon* (1995), esate baterako, amatasun ezkongabea oinarri duen eleberria da, zeinetan Claire Walsh protagonistaren senarrak lehenengo seme-alaba erditzen duen egun berean beste emakume batengatik uzten duen. Claire emakume indartsu, aske modura dago irudikatua, bere egoerari graziaz, umorez eta heldutasunez aurre egiten diona, ondoko zatian erakusten den moduan, bertan Claire-k bizi dituen inguruabarrei buruzko hausnarketa egiten du:

> Nire ezkontza eten egin zen, baina haur zoragarri bat nuen. Familia izugarria nuen, oso lagun onak eta itzultzeko aukera ematen zidan lanbidea. Batek daki, noizbait, gizon jator bat ezagut nezake, nirekin batera Kate ere hartzea axolako ez litzaiokeena. Edota behar beste itxarongo banu, agian Katek gizon jator bat ezagut lezake, berarekin batera ni ere hartzea axolako ez litzaiokeena. Baina bitartean neure bizitzarekin aurrera egingo nuela erabaki nuen eta Gizon Perfektua parean jartzen bazitzaidan, nonbait tokiren bat egiteko moldatuko nintzela. (Keyes, 2003b: 565)

Berebat, Keyes-ek euren kabuz ama ezkongabe izatea erabaki duten emakumeak ere aurkezten dizkigu, *Anybody Out There?* (2006) liburuan esaterako, non Jacqui, Annaren lagun minena haurdun geratzen den gau bateko afera baten ondorioz. Oraintsu arte halako egoera batek eragingo lukeen tragedia izatetik urrun, Jacqui izugarri lasai eta zentzuzko ageri da egoeraren aurrean:

> "Badakit. Pentsatzen aritu naiz." Pausa. "Haurdun egotea ez da orain bost urte, edo baita orain hiru urte ere, izango zatekeen hondamen izugarria. Orduan, ez nuen ziurtasunik, ez nuen xemeikorik eta ziur asko abortatu egingo nukeen. Orain ordea... apartamendua dut, ongi ordaindutako lana –ez da haien errua nire ahalmenen barruan bizi ezin badut- eta gustuko dut inguruan haur bat izateko ideia." (Keyes, 2006: 470-471)

*Anybody Out There?* liburuaren hitzaurrean irakur dezakegu Jacqui ama-berria narratzaileak "egungo familia unitatea" deitzen duenaren atala dela (Keyes, 2006: 587); izan ere, familia molde honetan haurraren gurasoek biek denbora ematen dute haurrarekin, baina ez daude haurraren onerako soilik bikote bihurtzera behartuak, irlandar gizarteak sasoi batean espero izango zuen moduan. Eleberriak, bada, erakusten du ama ezkongabearen egoera marjinalak -garai batean status quoarekiko mehatxu eta kezka-iturri modura ikusi ohi zenak-, egun "genero rol-en aldaketa aztertzeko ikuspuntu interesgarria eskaintzen duela" (Joannou, 2000: 42); *Anybody Out There?* Liburuak "familia moderno honen deskribapena egiten du, non gurasoak zoriontsu ezkongabe bizi diren eta ez ama, ez aita, horregatik "zigortuak" izan ez diren. Aita/amatasun bakarkakoa modu positiboan deskribatzearekin, Anybody Out There? moduko eleberriek aldaketa inplizitua dakarkie «elkar bizitzako ezkon-lotura oinarri ez duen tradiziozko familia bizitza "onartezin"ari» (O'Connor, 1998: 122), era honetara Irlandan ama ezkongabeekin hain usu lotzen den orbana kentzen lagunduz.

Argi eta garbi, Irlandan, "familia" adiera ezarian aldatzen hasia da. Hogeigarren mende amaiera gerturatu ahala, ikusi zen Irlandan eta Europar mendebaldeko beste herrialde batzuetan, "beheraldi izugarria izan zuela ezkontza tasak eta nolabaiteko heinean "familia" kontzeptua emakume eta haurren beharrak baliatu eta/edo baliogabetzeko erabilia izan zelako eta erabil zitekeelako kontzientziaren igoaldia" (O'Connor, 1998: 4). Keyes'en heroiak oso

kontziente dira emakumeen aukera aldaketa hauezaz; *Lucy Sullivan is Getting Married* liburuan (1996), izenburuko pertsonaiak garbi asko azaltzen du "ate bueltan larrosaz inguratutako baserri txiki batean emakumetxoa etxean etxekolanak egiten eta gizona egunak argitzen duenetik ilundu arte jo eta su lanean, aspaldiko kontua da" dioenean (Keyes, 2003a: 302). Halaber, Keyes-ek Irlanda garaikidean familia bizitzari dagokionez emakumeen aukera aniztasuna ere ordezkatzen du: *Watermelon*-en, esaterako, heroia, berak hala onartuta, «gehiago da berrogeita hamargarreneko hamarkadako emazte mota», zeina «guztiz zoriontsu zen etxekoandre izanik senarra soldata irabazten kanpoan zen bitartean» (Keyes, 2003b: 200). Honen aldean, ordea, Lisa -*Sushi for Beginners* (2000) liburuko protagonistetako bat- ia banandu zen senarrarengandik bere lana gehiegi lehenesten zuela uste zuelako eta haserre bizian zioen senarrak soilik "etxezuloan, haurdun eta arraskari lotua" nahi zuela emaztea (Keyes, 2007: 335), Lisak ez zuela etxean zain egongo zen emazte eta ama izateko asmorik adieraziaz. *The Brightest Star in the Sky* liburuak ere familia bizitzan beste aldaketa bat dakarkigu: zera, emakumeek egun beranduago izaten dituztela haurrak eta badagoela orain "lehenengoz, berrogei urteko ama ezkongabe izateko joera" aitortua (Keyes, 2009: 144). Biak ala biak ere, Lisaren lanbide nahiak eta emakume askok haurrak beranduago izateko joera, emakume irlandarrek gaur egun konta ditzaketen sentimenduak dira eta Irlandan "familia-moldea" izaten ari den aldaketaren ordezkari dira.

## 2. Sexua eta Emakumeen Gorputza Irlandan

Irlanda denbora luzean moraltasun garbizale zorrotzak gain hartu izan balu bezala ulertu izan da, irlandar kulturaren zati handi batean zehar barreiatu dena. Herri-kultura Irlandan zentsura-lege zorrotzek jo zuten alorretako baten adiera dugu. Esate batera, liburu ugari, batik bat egile emakumezkoenak, debekatu egin zituzten irlandar gizartearentzat moralki "desegoki" iritzitako gertaldiak barne hartzen zituztelako. Adibidez, Edna O'Brien-en *Country Girls* trilogia debekatu egin zuen Irlandako Zentsoreen Legeak; *Girls in their Married Bliss* liburuak, esaterako, "zentsoreen erraiak inarrosiko zituzten" sexu-eszenak ditu. Gaur egun horiek irakurrita, batek galdegiten du zergatik liskarreria guzti hura» (Imhof, 2002: 73). Berebat, *Spare Rib* aldizkari feminista hainbatetan debekatu zuten Irlandan, behin "emakumeei bularrak nola miatu erakusten zielako" (Wolf, 1991: 138), eta beste behin "antikontzeptiboei buruzko informazioa ematen zuelako" (Connolly, 2005: 39). Filmak ere ez ziren zentsura-legeen itzal luzetik libratu, esaterako:

> *Gone With the Wind* filma estreinatu zenean, ez zen Irlandako Errepublikan pantailaratu; izan ere, filmen zentsore ofizial zen James Montgomeryk hainbesteko mozketak egin zizkion, non banatzaileak erretiratu egin

> baitzuen. Ironikoa bada ere, Montgomery sutsuki aurkajarri zitzaion erditze-eszenari! Ordea, irlandar konstituzioak amatasun estatusa ofizialki aitortzen bazuen ere, ama izateko prozesu naturalak –sexua eta erditzea- lizuntzat jotzen ziren. (Pramaggiore, 2006: 120)

Baita kirolen mundua ere, 70eko hamarkada amaiera arte, gizonezkoena soilik izan zen, "Estatu Librearen izpiritu katoliko kontserbadoreak emakumeak atletismo-lehiaketa lehiakorretatik bereizi baitzituen" (Hill, 2003: 7), Pio XI Aita Santuak 1929an ebatzi ondoren "eginahal bortitza" eta "jantzien urritasun agerikoa" –emakumeen kirolarekin lotzen zena-, emakumeak gizonezkoen ikusle taldeen aurrean aritzearekin batera, oso egoera desegokia zela oraindik aratz eta garbi izan eta eutsi nahi zion zeinahi emakumerentzat (Judge: 1995).

Zentsura ia gehiena emakumearen sexualitatearekin eta emakumearen gorputzarekin lotua zegoen, biak ala biak ere bekatu iturri zirenak Irlandan. Keyes-ek erakusten digu nola emakumearen gorputzarekiko halako jarrera tradizioz zentsurazaleek nolabaiteko "biharamun" eragina izan zuten Irlandan hogeigarren eta hogeita batgarren mendeetan; *This Charming Man* liburuan esate batera, protagonistetako batek islatzen du nola emakume irlandarrak maiz euren gorputzarekiko lotsari edo kritikoegi sentitzen diren eta sentimendu hori are nabarmenagoa egiten du beste kultura batzuetako emakumeek haien gorputzarekiko erakusten duten konfiantzaren lekukotasunak:

> Txirrinak jo du. Nkechi dator. Guztiek begiratu diote. Badago zer begiratua. Nigeriarra, itxura ederra, bizkarrean behera txirikordak zintzilik, hanka oso luzeak, eta orduan, hanken akaberan, gainean, izugarrizko ipurdia tinko. Nkechik ordea ez zuen sekula ipurdia ezkutatu nahi izan. Ipurdiaz harro zegoen. Liluratzen nau. Neska irlandarren bizitza ipurdia ezkutatzeko edo ipurdia txikiagotzeko trikimailuen etengabeko bilaketa zen. Badugu zer ikasia beste kulturetatik. (Keyes, 2008: 32)

Interesgarria da azpimarratzea arestiko aipameneko protagonistak dioena, irlandar emakumeak maiz biribiltasunak ezkutatzen edo txikiagotzen saiatzen direla; bestela esanda, haiek emakume egiten dituen gorputzaren bereizgarriak, hain zuzen ere. Honek iradokiko luke Irlandan jarrera tradizionalak, emakumearen gorputza bekatu iturri izatearekin alderatzen duenak, oraindik ere eragin handia duela emakume irlandarrengan eta ondorioz, *emakumetasuna* ezkutatzeko beharra sentiarazten diela. Sentimendu hau are adierazkorragoa da *Lucy Sullivan is Getting Married* (1996) liburuan, protagonistak adierazten duenean bere gorputzaren itxurak eragiten dion konfiantza ezak sustraitik errotutako «Ogen katolikoarekin » batera (biak ere tradizioz Irlandan emakumearen « moraltasuna » bultzatzearen isla) sexu bizitza osasuntsuaz gozatzea eragotzi diola:

> Susmoa nuen bular handi sendoak eta zelulitisik gabeko urrezko hanka

> luze lirainak izan banitu, bekatu katolikoa barkatuko zitzaidala. Ziurrenik, askoz errazago salto egingo nuke ohera erabateko ezezagunekin. Akaso sexua nagusiki muga kaltegarria izan beharrean, goza nezakeen jarduera izan zitekeen, ondo pasatzen ari nintzela adierazteaz bat handiegia zen ipurdia ezkutatzen saiatuz, txikiegia zen bularra, hankak oso... eta abar, eta abar. (Keyes, 2003a: 239)

Honek erakusten du hainbat emakume irlandarrek mugaketak ezarri zaizkielako sentimendua dutela eta zail dela horietatik ihes egitea. *This Charming Man* liburuan jende askok bizitza "morala" eta garbia daramala erakusteko hartzen dituen neurriak ditugu ikusgai, horixe espero dela Irlanda garaikidean uste dutelako. Pertsonaietako bat politikari batekin irteten da eta nahiz egia den haren etxera joan dela bizi izatera, senargaiak bere etxea mantentzeko eta elkarrekin bizi ez direlako itxura egiteko eskatzen dio, andregaiarekin "bekatuan bizi izateagatik" boto-emaile irlandarrak ez dakizkion aurkatu; jokamolde honek erakusten digu irlandar moraltasunaren adiera tradizionalak oraindik ere buru egiten duela jende askoren iritzian eta zail dela horri ihes egitea:

> lEgia esateko, hilabeteak dira gau bakar bat bere etxean igaro ez duenetik, baina Paddyk itxura egin behar dutela dio. Irlandar hautesleria piztia iragarriezina da esan zuen: Une batean nahi bezain liberala, hurrengoan "bekatuan bizi den" jendeaz haserrea eta amorrua iraitziz. Izatez, Paddy saiatu zen ezkontza ostera bitartean nor bere etxean *naturaltasunez* bizi zedin, baina kontu horrekin Aliziak ez zuen amore eman. Denbora luzeegi egon zen haren zain, gehiegi maite zuen, ezin zuen bera gabe egon. (Keyes, 2008: 231)

Nuala O'Faolain idazle irlandarrak komunitate irlandarrak deskribatzen ditu esanez "bortizki zigortzaileak direla" eta urte luzeetan, komunitate hauek emakumeekiko beldur instituzionalizatua zutela, hau da, sexualitatearekiko beldur" (O'Faolain, 2006: 294). Ez da hau, ordea, harritzeko, aintzat hartzen badugu nola:

> 1920 eta 1930eko urteetan berriki eratutako Estatu irlandar Librearen pentsamolde Katoliko nagusiak, nolabait esateko, hainbeste sexugabetu zuen emakumea, non ezkontza baitako sexuari ere arriskutsuegi iritzi baitzion publikoki eztabaidatzeko eta baita maila pribatuan eztabaidatua izateko ere. Tabu honek ekarri zuen ondorioetako bat izan zen historikoki arreta txikia eskaini izatea irlandar emakumeen sexu-jarduerak ageriko egiteari. (Hayes, 2001: 79)

Irlandak aniztasun sexualerako erakutsi zuen tolerantzia eza, nagusiki emakumeei zegokienez gertatzen zen; "sexu-desiorik ez zutela uste zenez gero, "sen moral" sakonago batek konpentsatzen baitzituen eta sexu kontuetan ongiaren eta gaizkiaren zentzu zorrotzagoak" (McLoughlin, 1994: 81). Ondorioz, gizarte arauek kementsu aldarrikatzen zuten emakumeek ezkondu bitartera arte itxaron beharko zutela sexuaren intimitateaz plazer hartzeko. Jakina, egoera hau mundu osoan barna barreiatu zen, "sexua emakume

baten bizitzan atal desiragarria dela" iradokitzea, ezkonduta egon edo ez, tradiziozko moraltasunarekiko erronka nabarmena zela uste izan zenean (Joannou, 2000: 58); azken batean, *The Brightest Star in the Sky* eleberriko pertsonaietako batek dioen bezala, "emakume batek duen guztia izen ona da" (Keyes, 2009: 472). Aldi berean, emakumeen birjintasunak "halako balio itzela du hainbat ingurutan, hura ezkontzaz kanpo galtzeak izugarrizko hondamena baitirudi" (de Beauvoir, 1997: 400). Agian, horrexegatik *Angels* (2002) bezalako eleberrietan, protagonistak azpimarratzen du ama nola harrotzen den jendeari alaba lehenengo senargaiarekin ezkondu zela kontatzean, horrekin nolabait adieraziaz alaba garbia eta birjina zela, emakume irlandarrei lotzen zaien moraltasun zentzuari atxikia, nahiz ondorio horrek ez duen egia osoa zertan izan:

> Lehenengo senargaia izan nuen, ama gajoak aspertu gabe jendeari behin eta berriz kontatzen diona. Bere iritzira horrek erakusten du zein neska zintzoa nintzen, besteren ohetan ibiltzeko kontu zikin horiek inoiz egin ez zituena. Baina arrandikeriatan dabilenean apropos esaten ez duena da Garv izan zitekeela nire lehenengo senargaia, baina ez zela bakarra izan. (Keyes, 2002: 2)

Neurri hauek jendea emakumeen moraltasun sexualaz sinetsarazteko hartuak izango ziren, izan ere, emakumeei zegokienez, sexu-apeta izatea moral-gaixotasunaren sintoma nagusienetako bat zela pentsatzen baitzen (Showalter, 2009: 99). Nolanahi den ere, mugimendu feministak eta 1960ko hamarkadako "Gizarte permisiboak" egoera hau aldatuko zuela espero zen, eta emakumeek "ezkon-aurreko sexua bikotekide bakarrarekin edo gehiagorekin izatea aukeratzeko "eskubidea" (...) eta sexuaz gozatzeko "eskubidea" izango zutela" (Whelehan, 1995: 148). Ondorioz, maiz azpimarratzen da guk "ez dugula ezkongai birjina izateko irrika biziaren ideia bizkartuko" (Greer, 2006: 102). Ordea, Irlandan Gizarte Permisiboaren eraginak denbora luzeagoa behar izan zuen gizartean orokorrean onartua izateko:

> Beste gizarte batzuetan sexualitatea ageriko zerbait bihurtu zen bitartean, hemen ezkutuan geratu zen. Irlandar emakumeak (eta gizonezkoak) ez dira gehiegi endredatu Mendebaldeko herrialdeetan gertatu den sexualitate gehiegikeriaren gurpilean. Bada, beste herrialde batzuetako literatura feministak sexualitateaz mintzaldi amaigabeak erakusten dituzten bitartean, irlandar feministen arteko gaiari buruzko eztabaida ez zen inoiz jabetza publikora hedatzeko gai izan. (Viney, 1989: 64)

Irlandar gizartea lausotu duen moraltasunaren sen zorrotzak bazirudien bekatua ia soililk sexuarekin lotzen zuela eta horrek aldi berean esan nahi zuen "Irlandan giza-arauek eta Irlandako legeriak ez dituztela inoiz emakumezkoen sexu eskubideak babesten dituzten printzipio eta jokamoldeak besarkatu" (Corcoran, 1989: 18). Emakumeen sexualitatea gizonezkoena baino zorroztasun handiagoz zentsuratu eta kontrolatzen zen eta hainbesterainokoa zen

ezen sexuarekin zerikusia zuten kontuak eztabaidatzea debekatua baitzegoen irlandar etxe ugaritan, ia gehienetan ez bazen. Tabutzat hartzen zituzten kontu horiek guztiak eta horren ondorioz, neska gazte ugari ez ziren hilekoa etortzeko ere prestatuak egoten. Halako gaiei buruz emakume irlandarren artean egindako azterlan batean:

> Erantzun zutenetatik biri baizik ez zieten horri buruz hitz egin, bati amak eta beste bati, lehengusina batek. Gainerako emakumeen oroitzapen gehienek hilekoa lehenengo aldiz etorri zitzaienean sentitu zuten izua eta ikara erakusten zuten, zikindutako arropa eta eskuoihalak beheratu eta garbitu beharreko hileroko errituallen isilekotasunak lotsatuta; horiek, gainetik, gainerako senide gizonezkoengandik isilgordean eduki behar ziren. Tabu hori ezagututa, akaso ez da hain harrigarria emakume gehienek esan izana gaztaroan sexuaz guztiz ezjakin zirela. (Lambert, 2000: 183)

Azpimarratu behar da hilekoarekiko halako arbuioa izatea, gizarteak isilpean gordetzeko egin duen ahaleginaz batera, ez dela nahitaez iraganeko kontua; gizarte garaikidean ere, "konpresak supermerkatu eta aldizkarietako iragarkietan agerian erakusten diren bitartean, hilekoa oraindik ere sekretu errudun modura ikusten da" (Viney, 1989: 60). Keyes-ek zuzenean aipatzen du kontu hau *Last Chance Saloon* (1999) eleberrian, bertan protagonistetako batek, Katherinek, tanpoien iragarkia egiteko "arauak" azaltzen ditu: "Bi arau sendo eta finko daude tanpoien iragarkietarako: produktuari aipamena eufemismoen bidez soilik egiten zaio, eta kolore gorriak ez du inoiz azaldu behar" (Keyes, 1999: 59).

Tanpoi eta beste produktu higieniko batzuei buruzko egungo iragarkiez hausnar egiten badugu, Katherineren hitzek zenbaterainoko egia dioten jabetuko gara. Horrezaz gainera, badirudi tanpoien iragarkietan ageri diren emakumeak beti jarduera fisiko indartsuren bat egiten ari direla, pozez barre egiten duten bitartean, ideia patriarkal okerrekoari hilekoa emakumeen arazoa dela eta horrek eragiten duen ondoeza jendearen ezagutzatik ezkutatu behar litzatekeela gaineratu behar zaiola. Nolanahi dela ere, Keyes-ek ez du soilik hilekoaren zentsura onartzen, baizik eta aipamen zuzena ere egiten dio: "Gorriaren distirak ustekabean harrapatu ninduen. Odola. Hilekoa." (Keyes, 2006: 300). Aipamenaren xalotasuna, esate hutsa, Keyes Irlandan hilekoari buruzko eztabaida bideratzen saiatzen ari delako adierazle positiboa da.

Irlandako gizarteak sexua bekatu modura ikusten zuen aldetik, emakumeek sexu askatasuna ezkontzaren mugartean soilik izan zezaketen eta orduan ere, sortzeko bazen baino ez. Erditzea bera ere, jaiotzari darion "zikintasuna"rekin, purifikatze erritualen bitartez gauzatzen zen, suspertze zeremonia esaterako, "erditu osteko bedeinkazio" mota bat (de Beauvoir, 1997: 178), uste batera emakumea sexua izan eta ondorioz sortutako haurra erditu izanaren

"bekatutik" garbitzen zuena. Ondorioz, emakume haurdunaren tabu hau ere tradizioz emakumearen gorputzaren errepresioa ekarri duen beste alorretako bat izan zen. Ikusmolde irlandar batetik, ironikoa da erditzea hain gogorki zentsuratzea, irlandar gizarteari lotua zegoen amatasunaren eta familiaren santutasuna aintzat hartzen badugu. Izan ere, ugalkortasunari eta erditzeari buruzko gaiak "emakumeek euren artera mugatu beharko lituzketen kontu likinak ziren (ginekologoen lanbidea salbuetsita)" (Viney, 1989: 60). "Erditzen ari diren emakumeen kontakizunak ezohikoak direla hogeigarren mendera arte azpimarratu da eta ia beti ikuslearen ikuspuntutik amarenetik bainoago, aitaren edo laguntzen ari zaion beste norbaiten ikuspuntutik, agian" (Joannou, 2000: 45). Horrezaz gain, gogora ekarri behar dugu halakoak ez zirela soilik esparru pribatuan zein publikoan ezkutatzen, baizik eta komunikabideetan hardunaldi eta erditze irudiak ere zentsuratu egiten ziren eta horren erakusgarri da *Gone with the Wind* filma Irlandan debekatu izana, erditze eszena bat ikus zitekeelako bertan.

*Watermelon* bezalako eleberriek haurdunaldia eta erditzea emakumearen ikuspuntutik erakusteaz gain, horiek emakumearen gorputzean eragiten dituzten ondorioen zerrenda mugagabea ere ematen dute, emakumearen gorputza ezagutzera urruti joan behar izaten zuen herrialdean aurrez sekula aditu gabekoa:

> Egia esan, astebete baizik ez da praka normalak berriz janzten hasi naizenetik.
>
> Utzidazu argitzen.
>
> Ez duzu akaso jakingo baina erditu eta berehala ez zara bizimodu egunerokora eta, garrantzitsuagoa dena, ohiko janzkietara itzultzen.
>
> Ezta pentsatu ere!
>
> Denbora luzea behar dute gorputzaren zenbait prozesuk gelditzen. Ez dut beharrik gabe makabro agertu nahi hemen, baina esan dezaket ez niokeela Lady Macbeth-i erraz irabazten utziko.
>
> Ez zaitez toki orotako odolaz mintzo, emakumea! (Keyes, 2003b: 276-277)

Halako adierazpenak emakumeen kontuak eta esperientziak jendaurrera ekartzen laguntzen ari dira, gaurdaino "tabu" modura sailkatuak zeudenak. Jokamolde honekin Keyes-ek emakumeen gorputzak eta emakumeen sexualitateak normalizatzen laguntzen du, beste idazle irlandar batzuek jarraituko dioten arrastoa izatea espero duguna.

Abortua ere hein berean izan da arazo iturri Irlandan, gehiago izan ez bada. Eragindako abortua Irlandan modu klandestinoan egin izan da mendeetan zehar eta halaxe jarraitu zuen harik eta 1967ko urtean Britainian legezko abortua ezarri eta emakume irlandarrak abortu seguruagoak egiteko hara bidaiatzen hasi ziren arte. "Emakumeen Erabakitzeko Eskubidea" izeneko taldea sortu zen Irlandan eta

helburua abortua despenalizatzea eta Irlandan haurdunaldiari buruzko aholku zerbitzu feminista ezartzea zuen. Nolanahi den ere, Irlandak zentsura gogorraren bitartez egin du borroka, abortuari dagokionez. Abortuari buruzko 1983ko erreferendumaren ostean, esaterako, RTÉ Irlandako irrati-telebista nazionalari galarazi egin zitzaion irratian zein telebistan abortuari buruzko inongo eztabaida bizirik bideratzea. Horrezaz gain, informazio zentsura honek zera hartzen zuen barne:

> Emakumeen auto-laguntzako liburuen erretiroa (Gure Gorputza, *Gu Geu... eta enparauak*), eta baita liburutegi publikoetatik telefono-gida Britainiarren erretiroa ere. Honek guztiak berekin zekarren Dublingo Emakumeen Zentroaren, Open Line Aholku zerbitzuaren eta Ikasleen Elkartearen aurka legezko jarduerak abiaraztea, izan ere talde hauek informazio horren emaile zirela uste baitzen. (O'Connor, 1998: 93)

Zentsura hau murriztu egin da Irlandan, Keyes bezalako idazleek gutxienez abortuaz hitz egin dezaketen heinean. *Last Chance Saloon*-en, esate baterako, Katherinek gogoan du nola gaztea zela gizon ezkondu batek haurdun utzi zuen eta Ingalaterrara abortatzera joan beste aukerarik ez zuela jabetu zela (nahiz abortatu aurretik galdu zuen haurra). Eleberri honek legezko abortu zerbitzuez baliatzera Ingalaterrara bidaiatu behar duten emakume irlandarren egoera azalera ekartzeaz gain, emakume irlandarrek gai honen gainean dituzten sentimendu nahasiak ere azpimarratzen ditu. Katherine, beste hainbat emakume bezala, abortua bekatua bailitzan hezi zuten eta hori legeztatzeko kanpainen aurka egin zuen ahozko protesta; dena den, haurdun geratu zenean, batek bere burua egoera horretan ikusi arte ez zela hain kontu erraza jabetu zen eta aukera egin behar izan zuen, bizitza osoan berekin eraman beharko zuen aukera:

> *Abortua*.
> "Badakizu nik ez dudala –ez nuela behintzat- horretan sinesten." Katherinek ezin zion Tarari begiratu, izan ere, gogoan baitzuen nola eskolan, mojekin elkar hartuta adierazpen zorrotzak egiten zituen abortua hilketa zela eta inork ere ez zuela jaio-gabeari bizitza ukatzeko eskubiderik esanez. Hura guztia, ordea, desagerrarazi egin zuen bere buruaz jabetu zen izu-ikara larri hark. Lorcanek alde egin zuen une beretik abortua eduki nahi izan zuen. Bere bizitzaren gainbehera ekiditeko beste modurik ez zuen batere ikusten. Bazekien Infernuan erreko zela, baina ez zuen axola. Infernuan zegoen jada. (Keyes, 1999: 567-568)

Egoera bertsua ekarriz, *Angels*-en azkenera, Maggie protagonista hamazazpi urte zituela eta artean eskolan, haurdun geratu zela kontatzen da. Katherinek ez bezala, haur jaio-gabea abortatu aurretik galdu zuena, Maggiek Ingalaterrara bidaiatu zuen abortua izatera. Nahiz hasiera batean lotsari eta bakarti sentitzen den, inoiz abortatu duen pertsona bakarra balitz bezala, Maggiek berandu baino lehen jakingo du bere lagunetatik hainbatek egoera bera bizi izan dutela, emakume irlandarrak legez abortatzera atzerrira maiz bidaiatu

behar izan dutela erakutsiz. Maggiek abortuarekiko dituen sentipen eta hausnarketek jarrera zintzoa eta objektiboa erakusten dute, bai abortatzeko erabakiari dagokionez, bai gerora izan ditzakeen sentipenez, adieraziaz emakumeek jaso duten heziketa alde batera, haientzat egoki den hura egin beharko luketela, Katherine bezala, bera ere jabetzen baita inork ez dezakeela bizitzako une jakin batean besteentzat zuzena zer den erabaki. Berebat, testuak ere erakusten du abortuak ez dituztela oraindik eskolan dauden edo ezkontzaz kanpo haurdun geratzen diren nerabeek eta emakume oso gazteek soilik izaten, haur baten erantzukizuna euren gain hartzeko gazteegi sentitzen direnak; ordea, zerbitzu horiek adin eta egoera pertsonal anitzak bizi dituzten emakumeek baliatzen dituzte, abortuari maiz atxiki izan zaion arrastoa urritzen lagunduaz:

> Denbora luzean, abortatu zuela ezagutzen nuen pertsona bakarra izan nintzen. Orduan, hogeita bost urte nituela, Donnak abortu bat izan zuen eta Sinead-en ahizpak ere beste bat izan zuen hogeita hamaika urterekin. Bietan ere niretzat zer izan zen kontatzeko deitu ninduten eta oneski zer pentsatzen nuen esan nien; euren gorputza zen eta aukeratzeko eskubidea zuten. Ez liekete inongo sinesgarritasunik eman behar bizitzaren aldeko handiputz haiei. Ordea, -ni bezalakoak baziren behintzat- ez zuten pentsatu behar mingabe aterako zirela esperientzia hartatik eta euren burua prestatu beharko zuten ondorioak jasateko. Errudun izatetik kuriositatera, bihotz-ikaratik arrangurara, nork bere burua gorrotatzetik aringarri izugarrienera bitarteko emozio guztiak. (Keyes, 2002: 360)

Nahiz Gobernuak Haurdunaldiko Krisi Agentzia abian jarri duen, gutxienez Irlandan abortuaren kontua zuzenbideratzen ari dela iradokitzen duena, zalantzazkoa da abortua inoiz Irlandan legeztatuko den. Gobernu irlandarrak, esate batera, ez du oraindik "legezko abortua Irlandan zein egoeratan gauza daitekeen argituko duen legeriarik garatu (eta) guztiz onartua dago ez dela etorkizun berehalakoan iritsiko" (O'Connor, 1998: 52).

Irlandan abortuaren auziak eztabaida sortzen jarraitzen duen arren, aktibismo feministak eta emakumeen taldeek zalantzarik gabe nabarmen lagundu dute emakume irlandarrek euren gorputzarekiko duten harremana hobetzen. Esate baterako, "familia planifikatzeko antikontzeptiboen erabilera legezko eskubide izateak, beste faktore batzuei uztartuta, sustraitik lagundu du Irlandan hogeigarren mende amaieran familiek zuten tamaina urritzen" (Connolly, 2005: 54). Berebat, garrantzitsua da aitortzea:

> Ez da hainbeste harreman heterosexual *guztiak* kategorikoki sorkuntza potentzial modura ikusten zirenetik, Elizaz Katolikoak tradizioz defendatzen zuen moduan. Sexuaren eta nahitaezko sorkuntzaren aribideak gaur egun, printzipioz, Irlanda garaikidean bi kontu bereizi modura trata daitezke, bai instituzionalki, bai intimoki ere. (O'Connor, 2005: 54)

Aldaketa honen zergatia hein handi batean Elizak Irlandan izan duen eragin eta arrastoa murrizten joan izanari zor zaio; hogeita batgarren mende hasieratik "bir-lerrokatzea gertatu da Elizaren, estatuaren eta gizarte zibilaren artean eta erakusten digu Elizaren agintea, sexu kontuetan bereziki, ezarian urritzen joan dela eta amildegia sortzen hasia dela erlijioaren praktika formalaren eta eguneroko egitekoen artean" (Hill, 2003: 5). Honen guztiaren ondorioz, Irlandan sexu kontuei buruzko iritziak gero eta "irekiago" bihurtzen ari dira, oraindik ere oso poliki izan arren:

> Parroki-elizetako apaizek bikote maiteminen sasiak astintzen zituzten garaietatik, ezkontzaz kanpoko sexua bekaturik larriena zenean, eta emakumeak aitortzan zigortuak izatetik senarrekin hartu-emanak izateari uko egiteagatik, gaurdaino bada giza izatearen eta bere egitekoen ikuspegi nolabait arrazionalagoa. Edonola ere, zenbait jenderengan, oraindik ere lizunkeria arrasto bat itsatsia geratu da, joandako garai haietako errepresio zorrotzaren ajea. (Viney, 1989: 48)

Irlandan sexu xalotasuna babesten zeneko "aje" ondorio moduko bat ikus daiteke *Rachel's Holiday* (1998) eleberrian, ezen nahiz gaur egungo emakumeek Irlandan inoiz baino sexu askatasun handiagoa dutela esan daitekeen, kastitate eta murritzaldi kontzeptuak hain barneratuak egon dira irlandar jendearen gogoetan, oraindik ere horietako askok diraute itxura batean "errazagoa" den garai honetan, sexu harremanei dagokienez gutxienez, eta batzu-batzuek behar bada, pozik beretuko lukete xalotasun ukitua euren harremanetan:

> Bare eta ezti eseri ginen, Chris-en besoak estu inguratzen ninduela. Begiak bildu nituen, eta une labur batez, mundu perfektuan nengoela eta bera nire mutil-laguna zela amesten utzi nion ene buruari.
>
> Lehenagoko garaia ekarri zidan gogora, inozenteagoa, senargaiak gehienera ere besoaz inguratzen zintuenekoa eta –zortea bazenuen– musu ematen. Klaustroek gorde arazten zuten onestasuna gozoa eta erromantikoa zen. Hunkitu egin ninduen, zapuztu bainoago. (Keyes, 1998: 358)

Ordea, Keyes-en ia eleberri gehienetan, pertsonaia gehienek balioesten duten iritzia da emakumearen sexualitateari buruzko iritziak aldatu egin direla Irlandan eta inoiz emakumeak eztei egunera arte kastu, garbi eta birjin izatea espero bazen, "orain badirudi araua dela mutil-lagunari estu heldu nahi badiozu, hobe ondasunak ahal bezain laster ematea" (Keyes, 2007: 228). Garrantzitsua da hona ekartzea garai batean emakume irlandarrek apaltasun eta garbitasun sen zorrotza izatea espero zela, batik bat sexu hartu-eman eta gorputzari zegozkion gaietan, eta Keyes-en heroiek behinola moraltasuna gordailatu zuen herrialde baten ondoreak biziki gogoratzen eta sentitzen dituzten bitartean, aldi berean hogeita batgarren mende irekiagoan aurrera egiten saiatzen ari direla.

Artikulu honen helburua irlandar emakumeak eragin dituen hainbat

atal begietaratzea izan da, bai iraganean, bai gaur egun ere, ezkontzaren eta amatasun eta familiaren santutasuna ez ezik, emakumearen gorputzarena ere barne duela, eta nola islatzen diren kontu hauek Marian Keyes-en lanean: nola Keyes-ek gogora dakarren irlandar emakumeen iraganeko zapalkuntza eta nola kontu hauetako batzuek ere hainbat emakume eragiten dituen oraindik gaur egun. Keyes-ek berak “irlandartasun izate ezberdina kontatzen ari delako egitateari” egozten dio eskuratu duen ospea (Cremin, 1999: s.p.). Eta izatez, Keyes-en eleberriek alderdi hauek guztiak jendaurrera ekarriz garai batean emakume irlandarra zapaldu zuten alorren gogorapen irmoak eta nola oraindik horietako hainbat auzi atxikiak dauden emakume garaikideen gogoan erakusten digute.

## Bibliografia


BARROS DEL RÍO, M.A. (2000) «Edna O'Brien's Girls: The Challenge of Growing up in De Valera's Ireland», *Perspectives: Journal for Interdisciplinary Work in the Humanities*, 2, vol. I, n.p., [13/03/2005], <http://www.brookes.ac.uk/schools/humanities/research/perspectives/i1-2/EdnaOBrien.html>

CONNOLLY, L. and O'TOOLE, T. (2005): *Documenting Irish Feminisms: The Second Wave*, Dublin: The Woodfield Press.

CORCORAN, C. (1989): «Pornography: The New Terrorism», in *A Dozen Lips*, Dublin: Attic Press, 1-21.

CREMIN, K. (1999): «Hot Property», *Graph*, 2, vol. III, s.p.

DE BEAUVOIR, S. (1997): *The Second Sex*, London: Vintage Books.

GREER, G. (2006): *The Female Eunuch*, London: Harper Perennial.

HAYES, A. and URQUHART D. (eds.) (2001): *The Irish Women's History Reader*, London: Routledge.

HILL, M. (2003): *Women in Ireland: A Century of Change*, Belfast: Blackstaff Press.

IMHOF, R. (2002): *The Modern Irish Novel*, Dublin: Wolfhound Press.

JOANNOU, M. (2000): *Contemporary Women's Writing: From The Golden Notebook to The Color Purple*, Manchester University Press.

JUDGE, Y. (1995): *Chasing Gold: Sportswomen of Ireland*, Dublin.

KEYES, M. (1998): *Rachel's Holiday*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (1999): *Last Chance Saloon*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (2002): *Angels*, London: Penguin Books.

KEYES, M. (2003a): *Lucy Sullivan is Getting Married*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (2003b): *Watermelon*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (2004): *The Other Side of the Story*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (2006): *Anybody Out There?*, Dublin: Poolbeg.

KEYES, M. (2007): *Sushi For Beginners*, London: Penguin Books.

KEYES, M. (2008): *This Charming Man*, London: Michael Joseph/Penguin Books.

KEYES, M. (2009): *The Brightest Star in the Sky*, London: Michael Joseph/Penguin Books.

LAMBERT, S. (2000): From «Irish Women's Emigration to England 1922-1960: The Lengthening of Family Ties», in Hayes, A. and Urquhart, D. (eds.), *The Irish Women's History Reade*r, London: Routledge, 181-187.

MCCARTHY, Á. (2000): From «Hearths, Bodies and Minds: Gender Ideology and Women's Committal to Enniscorthy Lunatic Asylum, 1916-1925», in Hayes, A. and Urquhart, D. (eds.), *The Irish Women's History Reader*, London: Routledge, 102-109.

MCLOUGHLIN, D. (1994): From «Women and Sexuality in Nineteenth-Century Ireland», in Hayes, A. and Urquhart, D. (eds.), *The Irish Women's History Reader*, London: Routledge, 81-86.

NEGRA, D. (ed.) (2006): *The Irish In Us: Irishness, Performativity, and Popular Culture*, Duke University Press.

O'CONNOR, P. (1998): *Emerging Voices: Women in Contemporary Irish Society*, Dublin: Institute of Public Administration.

O'FAOLAIN, N. (2006): *The Story of Chicago May*, London: Penguin Books.

PRAMAGGIORE, M. (2006) «"Papa Don't Preach": Pregnancy and Performance in Contemporary Irish Cinema», in Negra, D. (ed.), *The Irish in Us: Irishness, Performativity, and Popular Culture*, Duke University Press, 110-129.

SCANNELL, Y. (1988) From «The Constitution and the Role of Women» in Hayes, A. and Urquhart, D. (eds.), *The Irish Women's History Reader*, London: Routledge, 71-78.
SHOWALTER, E. (2009): *A Literature of Their Own*, London: Virago Press.
VARIOUS AUTHORS (1994): *A Dozen Lips*, Dublin: Attic Press.
VINEY, E. (1989): «Ancient Wars: Sex and Sexuality» in *A Dozen Lips*, Dublin: Attic Press, 45-71.
WHELEHAN, I. (1995): *Modern Feminist Thought: From the Second Wave to "Post-Feminism"*, Edinburgh University Press.
WOLF, N. (1991): *The Beauty Myth: How Images of Beauty are Used Against Women*, London: Vintage Books.